# Pribatuen Iragarkiak

## GALDAKAOKO ANDRA MARI B.H. INSTITUTUA

IRAGARKIA Teknikari Espezialista Titulua galdu dela argitara emateko dena (Adarra. Ostalaritza eta Turismo, Espezialitatea: Ostalaritza). 9754

## EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIA MUSIKENE

IRAGARKIA, besteak beste, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko prozedurak jasoko dituen www.musikene.net web orriari publizitate ematekoa 9755

## BIZKAIKO HEGOALDEKO AKZESIBILITATEA, S.A. (INTERBIAK)

IRAGARKIA, Bizkaiko Irisgarritasuneko Plan Bereziaren bideratze juridiko-finantzerorako laguntza kontratuari buruzkoa 9755

# Anuncios Particulares

## INSTITUTO E.S. ANDRA MARI DE GALDAKAO

ANUNCIO del extravío de un Título de Técnico Especialista (Rama. Hostelería y Turismo, Especialidad: Hostelería). 9754

## CENTRO SUPERIOR DE MÚSICA DEL PAÍS VASCO MUSIKENE

ANUNCIO por el que se da publicidad a la página web www.musikene.net en la que se insertarán los procedimientos de adquisición de bienes y servicios. 9755

## BIZKAIKO HEGOALDEKO AKZESIBILITATEA, S.A. (INTERBIAK)

ANUNCIO para la contratación de la Asistencia para la viabilización jurídica-financiera del Plan Especial de Accesibilidad Bizkaia 2003. 9755

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-3032

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 15ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, merkataritzako zabalkunde- eta informazio-jardueretarako diru-laguntzen emakida arautzen duena.

Ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuak, bere III. Kapituluan, merkataritza-arloko laguntzak arautzen ditu. Halaber, 22. artikuluan, merkataritzako zabalkunde- eta informazio-jardueretarako diru-laguntzen programa arautzen du.

Adierazitako Dekretuaren babesean Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2000ko ekainaren 30ean emandako Aginduaren bidez, merkataritzako zabalkunde- eta informazio-jardueretarako diru-laguntzen emakida arautzen da. Agindua 131 zk. EHAA aldizkarian argitaratu zen 2000ko uztailaren 10ean eta, bertan, merkataritza-sektorearekin eta sektore horretako enpresekin zerikusia duten gaiei lotutako jarduerak eta informazioa bultzatzeko laguntza-esparru orokorra ezarri zen.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-3032

ORDEN de 15 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial.

El Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, regula en el Capítulo III las líneas de ayuda en el área de Comercio, regulando en su artículo 22 el programa de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial.

Al amparo del citado Decreto, fue dictada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial, publicada en el BOPV n.º 131 de 10 de julio de 2000, en la que se estableció el marco general de ayudas que favorezca la realización de actividades e información sobre temas referentes al Sector Comercial y a las empresas pertenecientes al mismo.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-banaketa modernizatzeko eta profesionalizatzeko dituen helburuak kontuan hartuta, Agindu honek merkataritza-enpresariari sektorearen egoeraz, bilakaeraz eta etorkizunaz informazioa zabaltzera zuzendutako hainbat jarduera sustatzeko laguntzen esparru orokorra ezartzen du; hori guztia, azken helburua sektorea hobetzea izanik, hain zuzen ere antolamendu-egitura indartsuen bidez, hau da, gutxieneko bazkide-kopuru batekin, kudeaketa-ahalmenarekin eta ordezkaritzarekin (eremu geografikoari dagokionez) bideragarriak izango diren eta berariazko helburuak izango dituzten erakundeen bidez. Horrek merkataritza-erakundeak hobetu eta modernizatzeko aukera emango du eta sektorearen interes orokorrak ordezkatzeko eta babesteko erraztasunak emango ditu.

Helburu horiek lortzeko, laguntza-baliabide ezberdinak koordinatu behar dira, eta zentzu horretan, Agindu honetan ezarri diren diru-laguntzek Sailak prestakuntza-alorrean bete nahi dituen helburuak osatzen dituzte. Bi linea horiek helburu bera dute, merkataritzasektorean diharduten agente ekonomikoen prestakuntza eta profesionalizazioa.

Agindu honetan arautuko laguntza-programak ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuan xedatutakoa garatzen du. Dekretu horren Azken Xedapenetatik Lehenean ahalmena ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Horregatik guztiagatik, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Agindu honen xedea ondokoa da: ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 22. artikuluan ezarritako merkataritza zabalkunde eta informazioko jardueretarako laguntzen programaren esparru orokorra garatzea.

2.– Laguntza-programa horri jarraiki, merkataritzasektorearekin eta sektore horretako enpresekin zerikusia duten gaiei buruzko zabalkunde- eta informazio-jarduerak egiteko diru-laguntzak emango dira.

*2. artikulua.–* Ekonomia-baliabideak

Aurreko artikuluan adierazitako helburura zuzendutako ekonomia-baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidak.

Agindu honetan arautako laguntzak Europako Gizarte Funtsak lagunduta daude.

De acuerdo con los objetivos del Departamento de Industria, Comercio y Turismo orientados hacia la mejora de la profesionalización del sector de la Distribución Comercial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la presente Orden establece el marco general de ayudas para fomentar la realización de diferentes actividades dirigidas a difundir e informar al empresario comercial sobre la situación, evolución y perspectivas del sector. Todo ello teniendo como finalidad última la mejora del sector mediante la actuación de estructuras organizativas fuertes, es decir: organizaciones con objetivos específicos; que sean viables y tengan un mínimo de comercios asociados, capacidad de gestión y representatividad en cuanto a ámbito geográfico que permita la mejora y modernización de las organizaciones comerciales, facilitando la representación y defensa de los intereses generales del sector.

La consecución de estos objetivos exige la coordinación de los diferentes instrumentos de ayuda y, en tal sentido, las subvenciones establecidas en la presente Orden complementan las actuaciones que en materia de formación se ha fijado el Departamento. Ambas líneas coinciden en el objetivo de la profesionalización y continua formación de los agentes económicos que operan en el Sector Comercial.

El programa de ayudas regulado en la presente Orden desarrolla lo dispuesto en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, en cuya Disposición Final Primera, se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto

1.– El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del Programa de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial establecido en el artículo 22 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

2.– De acuerdo con dicho Programa de ayudas, se otorgarán ayudas económicas para la realización de actividades de divulgación e información sobre temas referentes al Sector Comercial y a las empresas pertenecientes al mismo.

*Artículo 2.–* Recursos Económicos

Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las ayudas reguladas en la presente Orden están apoyadas por los fondos del Fondo Social Europeo.

*3. artikulua.–* Onuradunak

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak ondoko erakundeek eskuratu ahal izango dituzte:

a).Bazkide-kopuruari zein lurralde- edo sektore-eremuari dagokionez behar adinako ordezkaritza izango duten EAEko Merkatari Elkarteen federazioek edo taldeek.

b).Bazkide-kopuruari zein lurralde- edo sektore-eremuari dagokionez behar adinako ordezkaritza izango duten EAEko Merkatari Elkarteek eta Elkarte Mistoek.

c).EAEko hiru Lurralde Historikoetako Merkataritza Ganberek.

a) eta b) puntuen kasuan, ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuan arautzutako Merkatari Elkarteen Erroldan inskribatuta egon beharko dute.

Aipatutako laguntzak jaso nahi izanez gero, eskatzaileek Agindu honetako 6 eta 7. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute.

Onuradunei laguntzak nahiz diru-laguntzak onartu eta, hala badagokie, ordaindu aurretik, amaitu egin behar dira prozedura hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako antzeko laguntzak edo diru-laguntzak direla kausa laguntzak itzultzeko edo zigortzeko hasi diren prozedurak, baldin halako prozeduraren baten izapideak aurrera badoaz une horretan.

*4. artikulua.–* Diruz lagun daitezkeen ekintzak

1.– Ondorengo hauek dira diruz lagun daitezkeen ekintzak: merkataritza-banaketako sektorearekin eta merkataritza-enpresen kudeaketa sozial, ekonomiko eta juridikoarekin zerikusia duten erakusketa- eta garapen-jarduerak. Bi motakoak izan daitezke:

1.1.– Sektorean interes orokorrekoak diren gaiak aztertzen dituzten kongresuen, mahainguruen edo eztabaida-foroen antolaketari lotutako ekintzak diruz laguntzeko modukoak izango dira. Jarduera hauek 3.a) edo 3.c) artikuluan zehaztutako erakundeek antolatu ahal izango dituzte.

1.2.– Jardunaldi teknikoei, lantegiei eta mintegiei lotutako ekintzak diruz laguntzeko modukoak izango dira, betiere 10 ordutik gorako iraupena ez badute eta 3.b) artikuluan zehaztutako erakundeek antolatzen badituzte.

2.– Jardunaldi teknikoei, lantegiei eta mintegiei lotutako ekintzak 3.a) artikuluan adierazitako erakundeek garatzen dituztenean ere diruz laguntzeko modukotzat hartu ahal izango dira, betiere Erroldan barne hartutako Merkatari Elkarterik edo Elkarte Mistorik ez duten udalerrietan egiten badira.

3.– Beste Elkarte, Elkarteen Talde edo Merkataritza Ganbera batzuek ematen dituzten jardunaldiak ez dira ezein kasutan diruz laguntzeko modukoak izango, ez

*Artículo 3.–* Beneficiarios

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente las siguientes entidades:

a).Federaciones o Agrupaciones de Asociaciones de Comerciantes de la CAPV, que sean suficientemente representativas, tanto por su número de asociados como por su ámbito territorial o sectorial.

b).Las Asociaciones de Comerciantes y Asociaciones Mixtas de la CAPV, que sean suficientemente representativas, tanto por su número de asociados como por su ámbito territorial o sectorial.

c).Las Cámaras de Comercio de los tres Territorios Históricos de la CAPV.

En el caso de los puntos a) y b), deberán estar inscritas en el Censo de Asociaciones de Comerciantes regulado en el Decreto 148/1997, de 17 de junio.

Para poder acceder a las mencionadas ayudas, los solicitantes deberán cumplir lo dispuesto en los artículos 6 y 7 de la presente Orden.

La concesión y, en su caso, el pago a los beneficiarios de las ayudas reguladas en esta Orden quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 4.–* Actuaciones subvencionables

1.– Tendrán la consideración de actuaciones subvencionables, aquellas actividades que supongan exposición y desarrollo de temas relativos al sector de la Distribución Comercial y a la gestión de la empresa comercial en los aspectos socioeconómicos y jurídicos que la afectan. Podrán ser de dos tipos:

1.1.– Serán subvencionables las actuaciones relativas a organización de congresos, mesas redondas o foros de debate que traten de temas de interés general para el sector. Estas actividades podrán ser organizadas por las entidades determinadas en el artículo 3.a) o 3.c).

1.2.– Serán subvencionables las actuaciones relativas a jornadas técnicas, talleres y seminarios, siempre que no superen las 10 horas de duración y que sean organizadas por las entidades determinadas en el artículo 3.b).

2.– Las actuaciones relativas a jornadas técnicas, talleres y seminarios podrán ser consideradas subvencionables si son desarrolladas por las entidades comprendidas en el artículo 3.a) siempre que se realicen en municipios donde no exista una Asociación de Comerciantes o Asociación Mixta censada.

3.– En ningún caso serán subvencionables aquellas jornadas que sean impartidas por otras Asociaciones, Agrupaciones de Asociaciones o Cámaras de Comercio.

eta erakunde publikoek garatzen edo finantzatzen dituzten programak ere.

4- Jarduerek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

a) Hartzaileak merkataritza-enpresaburuak edo enpresa horietako langileak izatea.

b) Jardueraren garapena, guztizko kostuaren %20an gutxienez, erakunde antolatzaileak berak zuzenean edo inskripzio edo matrikularen kuotaren bitartez finantzatzea.

c) Gutxienez 10 merkataritza-enpresaren parte-hartzea izatea.

d) Jarduerak laguntza eskatu den ekitaldi ekonomiko berean eta eskaera-epea amaitzen denetik aurrera garatzea.

*5. artikulua.*– Prozedura hastea

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzen deialdi publikoa egingo da urtero. Diru-laguntzak ematean, oinarri hauek erabiliko dira: publizitatea, lehia eta objektibotasuna. Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearen ebazpen baten bidez egingo da deialdia, eta bertan datu hauek zehaztu behar dira: ekitaldiko diru-laguntzak emateko aurrekontu-esleipenaren zenbatekoa (4.1.1 eta 4.1.2 artikuluetan adierazitako jardunetarako kopuru partzialak zehaztuta), Agindu honetan ezarritako zenbatekoen eguneratzea kontsumorako prezioen indizeari (KPI) jarraituz, eskabideak aurkezteko epea eta lekua, eta eskabideak ematen dituzten lekuak.

*6. artikulua.*– Eskabideak

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaerak Merkataritza Zuzendaritzara zuzendutako eskabide-orrian formulatuko dira eta urteko deialdiari buruzko ebazpenean zehaztutako lekuetan aurkeztuko dira.

2.– Ekitaldi berean egin nahi diren jarduera guztiak gauzatzeko eskabide bakarra izango da.

*7. artikulua.*– Agiriak

Oro har, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eskabide-orriarekin batera:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatuko duen agiria, eta, hala badagokio, eraketa-eskrituraren, estatutuen eta erregistro-inskripzioaren kopia aurkeztu beharko dira.

b) Eskatzailearen legezko ordezkarien NANaren kopia, eta ahalordearen agiria.

c) Eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

d) Laguntza-eskaeraren xede den jarduera bakoitza azaltzen duen memoria, ondokoak adierazita: jardunaldiaren arrazoiak, zirkunstantziak eta interesa, burutu

Tampoco serán subvencionables aquellos programas desarrollados o financiados por Entes Públicos.

4.– Las actividades deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Que sus destinatarios sean empresarios comerciales y/o personal empleado en aquéllas.

b) Que el desarrollo de la actividad se financie en un mínimo del 20% del coste total mediante los ingresos obtenidos en concepto de cuota de inscripción, matrícula o aportación de la entidad organizadora.

c) Que cuenten con una asistencia mínima de 10 empresas comerciales

d) Que se desarrollen a lo largo del ejercicio económico de la solicitud de ayuda y siempre a partir de la finalización del plazo de solicitud.

***Artículo 5.***– Iniciación del procedimiento

Las ayudas reguladas en la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad. La convocatoria se realizará mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Consumo y en la misma se determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada al otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, especificando las cantidades parciales destinadas a las actuaciones recogidas en el artículo 4.1.1 y las del art. 4.1.2, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente Orden conforme al índice de precios al consumo (IPC), el plazo y lugar de presentación de las solicitudes y los lugares donde se facilite un modelo de solicitud.

***Artículo 6.***– Solicitudes

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden, se formularán en instancia dirigida a la Dirección de Comercio, y se presentarán en los lugares especificados en la Resolución de Convocatoria anual.

2.– La solicitud será única para el conjunto de actividades previstas a realizar a lo largo del ejercicio.

***Artículo 7.***– Documentación

Con carácter general, la documentación que deberá acompañar a los impresos de solicitud será la siguiente:

a) Documentación acreditativa de la identidad de la solicitante, aportando, en su caso, a tal efecto, copia de la escritura de constitución, estatutos y de la inscripción registral.

b) Copia del D.N.I. del representante legal de la solicitante, y documento de apoderamiento del mismo.

c) Copia de la Tarjeta de Identificación Fiscal de la solicitante.

d) Memoria explicativa de cada actividad para la que se solicita la ayuda, indicando razones circunstancias e interés de la jornada, presupuesto detallado de los in-

beharreko sarreren eta gastuen aurrekontu xehea, gastua burutzeko epeak eta egunak, hizlariak, bertaratuko direnen aurreikuspena eta abar.

e) Eskatzaileak Merkatarien Elkarteen Erroldan izena emateari buruzko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren ziurtagiria.

f) Elkarteko Idazkariaren ziurtagiria. Bertan, elkartutako merkataritza-enpresen izenen zerrenda (eskaera-epearen hasierakoaren aurreko hilabetean eguneratua) eta azken ekitaldian bildutako kuotak jasoko dira.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunek zerga-betebeharrak bete izanaren egiaztapenari buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan edo hori ordezkatzen duen araudian ezarritako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskatzailearen berariazko baimena duenean, laguntzak eta diru-laguntzak eskatzen dituztenek zerga-betebeharrak bete izana egiaztatuko duen ziurtagiria igortzea eskatuko die zerga-arloan eskumena duten organoei. Espedientean berariazko baimen hori jasota ez badago, interesatuek aurkeztu beharko dute ziurtagiria.

Lehendik Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean dauden agiriak ez dira berriro aurkeztu behar izango, baldin eta oraindik indarrean badaude. Halakoetan, eskabide-orrian noiz eta non aurkeztu diren adierazi beharko da, betiere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen Legearen) 35. artikuluko f) atalean ezarritako baldintzak eta edukia errespetatuz.

*8. artikulua.*– Aurkeztutako eskabidearen akatsen zuzenketa

Aurkeztutako eskabidean lurralde-bulegoak akats edo okerren bat edo zehaztasun eza ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio zuzentzeko. Eta gainera jakinaraziko dio eskabidea bertan behera utzitzat joko dela, baldin eta epe horretan zuzenketak aurkezten ez badítu, horrela agintzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak) 71.1 artikuluan.

*9. artikulua.*– Laguntzen kudeaketa

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoek egingo dituzte hasierako kudeaketa-lanak. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta balioztatuko dituzte, eta eskabide horiek egoki ulertzeko beharrezkotzat hartzen dituzten argibide eta agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dituzte. Ondoren, Lurralde Bulegoek Merkataritza Zuzendaritzara bidaliko dituzte ebaz-

gresos y gastos de ejecución, plazos y fechas de ejecución, ponentes, previsión de asistentes, etc.

e) Certificado de la Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación correspondiente, relativa a la inscripción de la solicitante en el Censo de Asociaciones de Comerciantes.

f) Certificación del Secretario de la Asociación o Agrupación en la que conste listado nominal de empresas comerciales asociadas actualizado al mes anterior al del inicio del plazo de solicitud y las cuotas recaudadas en el último ejercicio.

g) Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi siempre que cuente con autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones. En el supuesto de que no constase en el expediente la citada autorización expresa, éstos deberán aportar el correspondiente certificado.

No será preceptiva la presentación de aquellos documentos vigentes que ya se encuentren en poder del Departamento de Industria, Comercio y Turismo. En este supuesto, se hará constar en la solicitud la fecha y órgano o dependencia en que se presentaron, en los términos y con los requisitos establecidos en el artículo 35, f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 8.*– Subsanación de los defectos en la solicitud

En caso de que la Oficina Territorial correspondiente advirtiera la existencia de algún error, defecto o inexactitud en la solicitud presentada, lo comunicará al solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición de conformidad con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 9.*– Gestión de las ayudas

Las tareas de gestión se realizarán inicialmente por la correspondiente Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo la cual efectuará el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, pudiendo requerir cuanta información y/o documentación complementaria consideren necesaria para la adecuada comprensión de las mismas. Posteriormente la Oficina Territorial re-

pen-proposamenak. Zuzendaritza horrek ere, dagokion ebazpena emateko, egokitzat hartzen dituen argibide osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

*10. artikulua.–* Diru-laguntzen zenbatekoa

Agindu honen 6 eta 7. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunei eman beharreko laguntzen zenbatekoa ondokoa izango da:

1.– Eman beharreko laguntzen zenbatekoa diruz lagun daitezkeen jardueren aurrekontu-defizitaren %100eraino irits daiteke eta onuradun bakoitzak dirulaguntza jasotzeko ezarritako gehieneko muga (egin beharreko jarduera guztietarako) 12.000,00 eurokoa da.

2.– Mahainguruak eta eztabaida-foroak antolatzeko laguntzaren zenbatekoa 3.000,00 eurokoa izango da gehienez ere ekitaldi bakoitzeko.

3.– Kongresuak antolatzeko laguntzaren zenbatekoa 12.000,00 eurokoa izango da gehienez ere.

4.– Jardunaldi teknikoak, lantegiak eta mintegiak antolatzeko txostengileen kontratazioagatik diruz lagun daitekeen gehieneko defizita emandako ordu bakoitzeko 90 eurokoa izango da gehienez ere. Gainerako kostuengatik diruz laguntzeko modukotzat hartutako zenbatekoa berriz, 900 eurokoa izango da gehienez ere.

Gastuak kalkulatzeko, ondorengo gastuak hartuko dira kontuan:

– Txostengilea kontratatzeko gastuak.

– Burutu beharreko jarduera sustatzeko gastuak.

– Jardueraren agiriak argitaratzeagatik sortutako gastuak.

– Jarduerarekin zerikusi zuzena duen ohiko beste edozein gastu, erakunde eskatzailearen langile-gastuak izan ezik.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo bestelako zergen ondorioz jasandako kopuruak ez dira ezein kasutan diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko.

Sarrerak kalkulatzeko, ondorengo sarrerak hartuko dira kontuan:

– Erakunde antolatzaileak jarritakoak.

– Jardueran parte hartzen edo bertan azaltzen direnen harpidetza-sarrerak.

– Beste organo edo administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako laguntzak, eta, hala dagokionean, eurei eskatutakoak.

– Beste erakunde babesle batzuek jarritakoak.

– Jarduerarekin zerikusi zuzena duen ohiko beste edozein sarrera.

5.– Baldin eta 4. artikuluan aurreikusitako jardunetarako diruz laguntzeko moduko kopuruen bolumenak kopuru horietarako finkatutako kreditua gainditzen badu, eskatzaileak murriztu egingo du hainbanaketa bi-

mitirá las propuestas de resolución a la Dirección de Comercio, la cual, a su vez, podrá solicitar cuanta información complementaria estime oportuna, a efectos de emitir la correspondiente Resolución.

*Artículo 10.–* Cuantía de las subvenciones

El importe de las ayudas a conceder a los beneficiarios que cumplan los requisitos establecidos en los artículos 6 y 7 de la presente Orden será según sigue:

1.– El importe de las ayudas concedidas podrá alcanzar hasta el 100% del déficit presupuestario del conjunto de actividades subvencionables, estableciéndose el límite máximo de subvención por beneficiario para todas las actividades que realice en 12.000,00 Euros.

2.– El importe de la ayuda para la organización de mesas redondas y foros de debate no superará los 3.000,00 euros por evento organizado.

3.– El importe de la ayuda para la organización de congresos no superará los 12.000,00 euros.

4.– El déficit máximo subvencionable por la contratación de ponentes para la organización de jornadas técnicas, talleres y seminarios, no superará los 90 euros por hora impartida, y el importe considerado como subvencionable del resto de los costes no superará los 900 euros.

A efectos del computo de gastos, se consideran:

– Los de contratación de ponentes.

– Los gastos de promoción de la actividad a realizar.

– Los de edición de documentación soporte de la actividad.

– Cualesquiera otros de naturaleza corriente, directamente imputables a la realización de la actividad, excluidos los gastos de personal de la entidad solicitante.

En ningún caso se considerarán como gastos subvencionables las cantidades soportadas en concepto de Impuesto sobre el Valor Añadido u otros impuestos.

A efectos del cómputo de ingresos, se consideran tales:

– Los aportados por la entidad organizadora.

– Los de suscripción de los asistentes/participantes en la actividad.

–Las ayudas otorgadas por, y en su caso solicitadas a otros Órganos, Administraciones o Entidades públicas o privadas.

– Las aportaciones de otras Entidades patrocinadoras.

– Cualesquiera otros de naturaleza corriente directamente computables a la realización de la actividad.

5.– En el caso de que el volumen de las cantidades subvencionables correspondientes a las actuaciones previstas en el artículo 4.º, superara el crédito determinado para ellas, se procederá a su minoración por soli-

dez eta proportzio berean, onartutako eskaera guztien artean.

*11. artikulua.–* Ebazpena

1.– Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoek ebazpen-proposamena igorri ondoren, Merkataritza zuzendariak ebatziko du aurkeztutako eskabideei buruz.

2.– Laguntza emateko ebazpenean honako hauek adieraziko dira: laguntzaren xedea eta zenbatekoa; ordaintzeko era eta epeak; egiaztatzeko era; eta onartutako laguntzen zenbatekoa zein xedapenetan oinarritzen den.

3.– Sei hilabeteko epea gainditu baino lehen, ebazpen hori eman eta interesdunari jakinarazi behar zaio. Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da sei hilabeteko epe hori.

4.– Eskatzaileei diru-laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntzen zenbatekoa argitaratuko dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5.– Ebazpen horrek ez du administrazio bidea amaitzen, eta haren aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Merkataritza eta Kontsumoko sailburuordeari, azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako epea eta era errespetatuz.

6.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (azaroaren 26ko 30/1992 Legea), 44. artikuluan xedatutakoarekin bat, ebazpena emateko epea amaitu, eta interesdunari ez bazaio horren berri eman, eskatutako laguntza ukatu egin dela ulertu beharko da.

*12. artikulua.–* Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea

1.– Diru laguntzak honela ordainduko dira:

– Aurretik laguntzari uko egin ez bazaio, emandako zenbatekoaren %40 ordainduko da, aurrerakin moduan, 14 a) artikuluan jarritako epea igarotakoan.

– Diruz lagundutako jardunak justifikatzen diren heinean, ondoz-ondoko ordainketak egingo dira behin betiko likidazioa egin arte. Onartutako proiektua emakidari buruzko ebazpenean aurreikusitako baldintzetan justifikatuko da diru-sarrerak egiaztatuko dituzten agiriak eta fakturak igorrita. Era berean, parte-hartzaileen zerrenda eta hauek enpresa-arloarekin duten lotura aurkeztu beharko ditu erakunde antolatzaileak.

– Eskabidean aurkeztutako eta Merkataritza zuzendariak laguntzaren emakidari buruzko ebazpena jaso aurretik egindako jardunaldiei buruzko agiri justifikatzaileak dagokien Lurralde Bulegoan aurkeztu beharko di-

citante mediante un prorrateo en igual proporción entre todas las solicitudes aprobadas.

*Artículo 11.–* Resolución

1.– El Director de Comercio, a la vista de las propuestas de resolución remitidas por las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo, resolverá las solicitudes presentadas.

2.– En la resolución de concesión de la ayuda se hará constar el objeto y el importe de la misma, la forma y los plazos de pago, así como la forma de justificación y la disposición a cuyo amparo se hubiere otorgado la cuantía de las ayudas concedidas.

3.– La citada resolución deberá dictarse y ser notificada en un plazo máximo de 6 meses contado desde el día siguiente a la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Sin perjuicio de la notificación individual a los solicitantes de las resoluciones de concesión de ayuda, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los beneficiarios e importe de subvención concedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

5.– La Resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Comercio y Consumo en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/92, de 26 de noviembre.

6.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar resolución sin que ésta se haya notificado al interesado, podrá entenderse desestimada la ayuda solicitada.

*Artículo 12.–J*ustificación y pago de la subvención

1.– El abono de las subvenciones se realizará de la siguiente manera:

– Se procederá al pago anticipado del 40% del importe concedido, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 14 a), sin haber mediado renuncia.

– A medida de que se vaya justificando la realización de las actuaciones subvencionadas, se procederá a la realización de los sucesivos pagos hasta la liquidación definitiva. La justificación de la realización del proyecto aprobado será en los términos previstos en la resolución concedente, mediante la remisión de los documentos acreditativos de los ingresos y de las facturas justificativas. Asimismo la entidad organizadora deberá presentar la relación de participantes y su vinculación empresarial.

– La documentación justificativa relativa a las jornadas presentadas en la solicitud y que se realicen con anterioridad a la recepción de la Resolución de concesión de la ayuda por parte del Director de Comercio de-

ra hilabete bateko epean egiten direnetik aurrera kontatzen hasita.

Dena den, diruz lagundutako jarduerak burutzeko azken eguna deialdia burutzen den urteko abenduaren 31 izango da, eta egiaztatzeko azken eguna, berriz, deialdia burutu den hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31. Dena den, diruz lagundutako jarduerak burutzeko epea atzeratzen denean, Merkataritza zuzendariak epe hori hilabete batez luza dezake, gehienez ere, baldin eta atzerapen horren errua ezin bazaio onuradunari egotzi edo frogatutako arrazoiengatik atzeratu bada, beti ere, luzapen hori ezarritako azken epea amaitu aurretik eskatzen bada.

2.– Ordainketa bideratzen ari dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunek zerga-betebeharrak bete izanaren egiaztapenari buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan edo hori ordezkatzen duen araudian ezarritako kasuetan, adierazitako egiaztapena Agindu honen 7. artikuluko g) puntuan ezarritako eran egingo da.

*13. artikulua.–* Bateragarritasuna

1.– Agindu honetan ezarri diren laguntzak bateragarriak izango dira Administrazio publikoek nahiz erakunde pribatuek helburu berarekin ematen dituzten beste laguntzekin.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa, eta beste administrazio publikoek edo erakunde pribatu nahiz publikoek emandakoa, biak batera ezingo da aurkeztutako aurrekontuaren %100a baino handiagoa izan.

3.– Gainfinantzaketa gertatzen denean, eman beharreko diru-laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako proiektuaren kosturaino, eta ezingo dira, inolaz ere, arau honen 10.2 artikuluan aurreikusitako portzentajeak gainditu.

*14. artikulua.–* Onuradunen betebeharrak

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzen onuradunek ondorengo betebeharrak beteko dituzte:

a).Emandako diru-laguntza onartzea. Hartara, dirulaguntza eman zaiola jakinarazteko agiria jasotzen duenetik hamabost egun igarotzerako, erakunde onuradunek berariaz eta idatziz bekari uko egin ez badiote, diru-laguntza onartu dutela ulertuko da.

b).Diru-laguntza helburu jakin baterako eman da, eta beraz, helburu horretarako baino ezin da erabili, eta gainera, Merkataritza Zuzendaritzak eskatutako beste edozein informazio igorri beharko da bertara, diruz lagunduko proiektuen garapen eta betearazpena dela eta egoki iritzitako egiaztapenak burutu ditzan.

berá presentarse en la Oficina Territorial correspondiente en el plazo de un mes a partir de su celebración.

En todo caso, la fecha límite para realizar las actuaciones subvencionadas será el 31 de diciembre correspondiente al año de la convocatoria y la fecha de justificación el 31 de enero del ejercicio siguiente al de la convocatoria. No obstante, cuando por causas debidamente justificadas y no imputables al beneficiario, se demore el plazo de realización de las actividades subvencionadas, el Director de Comercio podrá conceder una prórroga para la realización de las mismas por un periodo máximo de 1 mes, siempre que dicha prórroga sea debidamente solicitada y concedida en fecha anterior al plazo límite establecido.

2.– En la fecha en que se tramite el pago, cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la referida acreditación se realizará en la forma establecida en el punto g) del artículo 7 de la presente Orden.

*Artículo 13.–* Compatibilidad

1.– Las ayudas establecidas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras ayudas otorgadas por administraciones públicas o por entidades privadas en las que se contemple la misma finalidad.

2.– El importe de la subvención no podrá, en concurrencia con ayudas o subvenciones de otras administraciones públicas o entes privados o públicos, superar el 100% del presupuesto presentado.

3.– En el supuesto de que se produjera una sobrefinanciación, se procederá a la reducción de la subvención a conceder hasta el límite del déficit del proyecto subvencionado, sin que en ningún caso puedan rebasarse los porcentajes previstos en el artículo 10.2 de esta norma.

*Artículo 14.–* Obligaciones de los beneficiarios

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a).Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b).Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, y aportar a la Dirección de Comercio cuanta información complementaria les sea solicitada, para que ésta pueda realizar las comprobaciones que estime oportunas en relación con el desarrollo y ejecución de los proyectos subvencionados.

c).Dagokion Lurralde Bulegoari, aurretiaz, gutxienez 7 egun baliodun lehenago, diruz lagundutako jarduerak egiteko lekua, eguna eta ordua idatziz jakinaraztea.

d).Jasotako diru-laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten zereginak aurrera eramanez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio oro ematea.

e).Diruz lagundutako jarduerak hedatzen diren aldioro, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak bultzatutako proiektua dela adierazi behar da, erakunde sustatzaileen euren baldintza berberetan.

f).Diruz lagundutako jardueretan, erakunde antolatzailekoak ez diren sektoreko langileen edo merkatarien agerpena onartu beharko da.

*15. artikulua.–* Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, dagokion Lurralde Bulegoari jakinaraziko zaio eta laguntza emateko erabakia aldatzea ekarriko du, betiere, arau honetan laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak gordetzen badira eta diruz lagundutako proiektuaren oinarrizko ezaugarriak mantentzen badira. Bereziki aintzat hartu ahal izango dira honako aldaketa hauek: aldi berean, beste Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek emandako laguntza edo diru-laguntzaren bat jasotzea, edo helburu bererako beste sarrera edo baliabiderik jasotzea.

Halakoetan, Merkataritza Zuzendaritzak aldaketa-erabaki egokia emango du, onartutako diru-laguntzen zenbatekoak berregokitzeko.

*16. artikulua.–* Ez-betetzeak

Elkarte onuradunak Agindu honetan ezarritako baldintzak ez betetzeak, datu faltsuak aurkezteak eta emandako diru-kopurua eman zen helburua betetzeko erabili beharrean beste helburu baterako erabiltzeak, betiere, diru-laguntza galtzea ekarriko du. Zigor hori jartzeko, aurretik, Merkataritza Zuzendaritzak espedientea irekiko du, eta interesdunari hamabost eguneko audientzia emango dio. Zigorra, emandako diru-kopurua itzultzea ez ezik, legez dagozkion interesak Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Orokorrari ematea ere izango da. Gainera, Merkataritza Zuzendaritzak legezko beste ekintzak ere egin ahal izango ditu. Horrela agintzen dute abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginа onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak.

c).Comunicar por escrito a la Oficina Territorial correspondiente, con una antelación mínima de 7 días hábiles, el lugar, fecha y hora de celebración de las actividades subvencionadas.

d).Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización respecto de las subvenciones percibidas.

e).En la difusión de las actuaciones subvencionadas deberá hacerse constar de manera explícita el apoyo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en igualdad de condiciones que el de las Entidades promotoras.

f).Deberá admitirse la asistencia de comerciantes o personal relacionado con el sector no pertenecientes a la entidad organizadora en las actuaciones subvencionadas.

*Artículo 15.–* Alteración de las condiciones de la subvención

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y en todo caso la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, deberán ser comunicadas a la Oficina Territorial correspondiente y podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos establecidos en la presente norma para ser beneficiario de ésta, y que se mantengan las características básicas del proyecto subvencionado.

A estos efectos, por la Dirección de Comercio se dictará la oportuna Resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*Artículo 16.–* Incumplimientos

El incumplimiento por parte de la asociación beneficiaria de los términos establecidos en la presente Orden o en la Resolución de concesión, la falsedad de los datos presentados, la aplicación de la cantidad percibida para una finalidad distinta de la que motivó su concesión determinará, previa tramitación del oportuno expediente incoado al efecto por la Dirección de Comercio y audiencia al interesado por un periodo de quince días, la pérdida de la subvención y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del Gobierno Vasco en el plazo de dos meses las cantidades percibidas, más los correspondiente intereses legales que correspondan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, todo ello de acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre y en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Agindu honetan arautuko laguntzen zenbateko orokorra, deialdiari buruzko ebazpenean esleitutakoa, aldatu ere egin ahal izango da, betiere, laguntzetarako ebazpenak eman aurretik, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatutakoan, agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da 2000ko ekainaren 30eko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, merkataritzako zabalkunde- eta informazio-jardueretarako laguntzen emakida arautzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehena.–*** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Agindu hau.

***Bigarrena.–*** Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maitzaren 15a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

El importe global de las ayudas reguladas en la presente Orden, consignado en la correspondiente resolución de convocatoria, podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas.

DISPOSICION DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.–*** Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de mayo de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## Zk-3033

AGINDUA, 2003ko maitzaren 15ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarteei eman beharreko diru-laguntzen programa garatzen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-banaketa modernizatzeko eta profesional bilakatzeko dituen helburuak kontuan hartuta, gero eta ordezkaritza handiagoa duten enpresak bultzatu nahi dira, sektore horretako ordezkari nagusi bilaka daitezen.

## N°-3033

ORDEN de 15 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa de las ayudas económicas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo destinadas a Asociaciones de Comerciantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con los objetivos del Departamento de Industria, Comercio y Turismo orientados hacia la modernización y profesionalización del sector de distribución comercial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ha procurado fomentar la existencia de asociaciones cada vez más representativas que se constituyan como los principales interlocutores sectoriales.